



**ORIOKUDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2011ko uztailaren 7a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 20:22

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegui, Ekiñe Saizar Larrañaga, Juan Vicente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularume, Miriam Uranga Egurza eta Jokin Izagirre Zabala.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2011ko ekainaren 11ko udalbatzarra eratzeko bilkuraren akta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarraren bilkurak zein maiztasunez egingo diren.
- 3.- Onartzea, egoki bada, alkatearen liberazioa eta dagozkion ordainsariak.
- 4.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena batzorde informatzaile iraunkorrak eratzeari buruz eta horien osaketari buruz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoari buruz.



- 6.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarreko ordezkarien izendapena ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatu guztietan.
- 7.- Alkateak hartutako erabakien berri ematea hainbat izendapeni buruz: alkateordeak, Gobernu Batzarreko kideak, batzorde informatzaile iraunkorretako buruak eta dagozkion delegazioak.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko jaieguna izendatzea 2012. urterako.

## Esan-eginak

Gai-zerrenda irakurri aurretik, Noemi Ostolaza Arkauz zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du ez duela jaso udalbatzarraren ezohiko bilkura honetako deialdia eta gai-zerrenda. Idazkariak erantzuten dio udaltzainburuak esan diola telefonoz eman ziola udalbatzarraren berri; nolahi ere, idazkariak adierazten du neurriak hartuko dituela, aurrerantzean deialdiak behar bezala egin daitezen, alde aurretik eta idatziz.

### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2011KO EKAINAREN 11KO UDALBATZARRA ERATZEKO BILKURAREN AKTA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** 2011ko ekainaren 11ko udalbatzarra eratzeko bilkuraren akta.

### **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN BILKURAK ZEIN MAIZTASUNEZ EGINGO DIREN.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-a) artikulua ezarritakoa betez, alkateak proposatu du udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken ostegunean, 20:00etan.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:



**ONARTZEA** udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken ostegunean, 20:00etan.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez dagoelako ados udalbatzarraren ohiko bilkurak 20:00etan egitearekin; adierazten du, orain arte, 19:00etan egin izan direla eta beranduago egiteak zailtasun handiak sortzen dituela lana eta familia-bizitza uztartzeko; bere talde politikoak udalbatzarraren ohiko bilkurak 19:00etan egiten segitzea proposatzen du.

Alkateak hartzen du hitza eta erantzuten dio Arkupe merkatarien elkarteak eskatu duela udalbatzarrak 20:00etan egitea eta hori izan dela bere proposamenaren arrazoia; nolana ere, adierazten du proposamen ireki bat dela eta, etorkizunean, alda daitekeela, egoerak hala eskatzen badu.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN LIBERAZIOA ETA DAGOZKION ORDAINSARIAK.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua ezartzen du udalbatzako kideek eskubidea dutela ordainsariak jasotzeko beren kargua betetzeagatik, bai dedikazio eskusiboan eta bai partzalean; kasu horretan alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, eta korporazioek beren gain hartuko dute enpresaren parteko kuotak ordaintzea. Alkateak proposatu du berak dedikazio eskusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin; Miriam Uranga Egurza zinegotziak (Orain) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 22. mailarekin; eta Amaia Dorronsoro Portullarrume zinegotziak (Bildu) %25eko dedikazio partzialarekin betetzea batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- **ONARTZEA** alkateak dedikazio eskusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 24. mailarekin.

2.- **ONARTZEA** Miriam Uranga Egurza zinegotziak (Orain) lansaio osoaren %50eko dedikazio partzialarekin betetzea Nekazaritza, Arrantza, Industria eta Turismo batzordeko buru eta Gizarte Ongizate, Enplegu eta Merkataritza batzordeko buru karguak, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 22. mailarekin.



3.- **ONARTZEA** Amaia Dorronsoro Portularrume zinegotziak (Bildu) lansaio osoaren %25eko dedikazio partzialarekin betetzea Obra eta Zerbitzuetako batzordeko buru kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 20. mailarekin.

4.- Beren karguak dedikazio eskusiboan eta partzialean beteko dituzten korporaziokideei alta emango zaie Gizarte Segurantzako Erregimenean eta Udalak hartuko du bere gain enpresaren parteko kuotak ordaintzea.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, bilkura honetan bertan jakin duelako alkatearen proposamenaren berri eta ez, behar den bezala, 48 ordu lehenago, patxadaz aztertzeko denbora izateko; alkateari eskatzen dio, aurrerantzean, epe hori betetzeko.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATZEARI BURUZ ETA HORIEN OSAKETARI BURUZ.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1-c) artikulua honakoa dio, hitzez hitz: *5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan (...) beste organo batzuk egongo dira, osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- **ONARTZEA** honako batzorde informatzaile iraunkorrek osatzea:

- Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzailea.
- Nekazaritza, Arrantza, Industria eta Turismoko batzorde informatzailea.
- Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailea.
- Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzailea.
- Kirola, Aisialdia eta Gazteriako batzorde informatzailea.



- Gizarte Ongizatea, Enplegua eta Merkataritzako batzorde informatzailea.

2.- **ONARTZEA** Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa. Honela osatuta geratuko dira:

### **Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzailea.**

Ordezkarititularrak: Beñat Solaberrieta Albizu (Bildu), Angel del Hoyo Bravo (EAJ) eta Miriam Uranga Egurza (Orain).

Ordezkariordezkoak: Amaia Dorronsoro Portularrume (Bildu), Jon Redondo Lertxundi (EAJ) eta Jokin Izagirre Zabala (Orain).

### **Nekazaritza, Arrantza, Industria eta Turismoko batzorde informatzailea.**

Ordezkarititularrak: Miriam Uranga Egurza (Orain), Jon Redondo Lertxundi (EAJ) eta Ekiñe Saizar Larrañaga (Bildu).

Ordezkariordezkoak: Jokin Izagirre Zabala (Orain), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ) eta Beñat Solaberrieta Albizu (Bildu).

### **Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailea.**

Ordezkarititularrak: Amaia Dorronsoro Portularrume (Bildu), Eugenio Cotado Iturain (EAJ) eta Jokin Izagirre Zabala (Orain).

Ordezkariordezkoak: Beñat Solaberrieta Albizu (Bildu), Angel del Hoyo Bravo (EAJ) eta Miriam Uranga Egurza (Orain).

### **Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzailea.**

Ordezkarititularrak: Jon Agirresarobe Lopetegi (Bildu), Lourdes Salsamendi (EAJ) eta Miriam Uranga Egurza (Orain).

Ordezkariordezkoak: Ekiñe Saizar Larrañaga (Bildu), Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ) eta Jokin Izagirre Zabala (Orain).

### **Kirola, Aisialdia eta Gazteriako batzorde informatzailea.**

Ordezkarititularrak: Bixente Lasa Karrikaburu (Bildu), Elena Etxeberria Sedano (EAJ) eta Jokin Izagirre Zabala (Orain).

Ordezkariordezkoak: Jon Agirresarobe Lopetegi (Bildu), Jon Redondo Lertxundi (EAJ) eta Miriam Uranga Egurza (Orain).

### **Gizarte Ongizatea, Enplegua eta Merkataritzako batzorde informatzailea.**

Ordezkarititularrak: Miriam Uranga Egurza (Orain), Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ) eta Amaia Dorronsoro Portularrume (Orain).



Ordezkarari ordezkoak: Jokin Izagirre Zabala (Orain), Eugenio Cotado Iturain (EAJ) eta Beñat Solaberrieta Albizu (Bildu).

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA UDALBATZARREKO KIDEEN ERREGIMEN EKONOMIKOARI BURUZ.**

Alkatearen proposamenez, Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsorora (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Orioko udalbatza osatzen duten talde politikoaren diru-esleipen finkoa: 350 euro hileko, talde politiko bakoitzarentzat.

2.- **ONARTZEA** Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorretako buruen diru-esleipena: 300 euro hileko, batzordeburu bakoitzarentzat.

3.- **ONARTZEA** Orioko Udaleko gainontzeko zinegotzien diru-esleipena: 200 euro hileko, zinegotzi bakoitzarentzat.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, ez dagoelako batere ados talde politikoaren diru-esleipenak onartzeko erabilitako irizpidearekin: talde guztientzako diru-esleipen finko berdina (hileko 350 euro) jartzeko partez, askoz zuzenago eta bidezkoago izango litzatekeelako, bere ustez, orain arte bezala jokatzeko eta diru-esleipena talde politiko bakoitzak lortu duen zinegotzi-kopuruaren arabera egitea.

Alkateak hartzen du hitza eta honako hau erantzuten dio: diru-esleipen finkoa eta talde guztientzako berdina proposatzeko arrazoia kostuak –eta, beraz, gastu arrunta– murriztea izan dela; adierazten du, baita ere, dedikazio eskusiboa eta partziala duten hiru udalbatzariak ez dutela kobratuko batzordeburu izateagatik edo zinegotzi izateagatik legezkiekeen ordainsariak.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANOKOLEGIATU GUZTIETAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinarekin gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



- 1.- Beñat Solaberrieta Albizu alkatea (Bildu) eta Noemi Ostolaza Arkauz zinegotzia (EAJ) Orioko udalbatzaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean.
- 2.- Beñat Solaberrieta Albizu alkatea (Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Urola Kostako Mendi Nekazaritzako Elkartean (URKOMEn).
- 3.- Beñat Solaberrieta Albizu alkatea (Bildu) eta Amaia Dorronsoro Portularrume Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileko burua (Bildu) Orioko udalbatzaren ordezkari titular eta ordezko **IZENDATZEA**, hurrenez hurren, Gipuzkoako Ur Kontsortzioan.
- 4.- Beñat Solaberrieta Albizu alkatea (Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** EUSKAL FONDOAko batzar nagusian.
- 5.- Beñat Solaberrieta (Bildu), Jon Agirresarobe Lopetegi (Bildu) eta Ekiñe Saizar Larrañaga (Bildu) udalbatzakideak Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean ( UEMAn).
- 6.- Beñat Solaberrieta Albizu alkatea (Bildu) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** goian propio aipatu ez den eta Udalaren ordezkari behar duen beste edozein organotan.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta eskatzen du, aurrerantzean, talde politiko guztiei behar den informazioa bidaltzea, aldez aurretik, egoki jokatu ahal izateko.

## **7.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA HAINBAT IZENDAPENI BURUZ: ALKATEORDEAK, GOBERNU BATZARREKO KIDEAK, BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRETAKO BURUAK ETA DAGOZKION DELEGAZIOAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak, 2011ko uztailaren 6ko ebazpenaren bidez, lehen alkateorde izendatu zuen Miriam Uranga Egurza, Udalean ordezkari daukan Orain talde politikoko zinegotzia, toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, era berean, honako zinegotziak izendatu zituen Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorretako buru:

- BEÑAT SOLABERRIETA ALBIZU (Bildu): Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzailearen buru titularra.

Ordezkoa: Amaia Dorronsoro Portularrume (Bildu).

- MIRIAM URANGA EGURZA (Orain): Nekazaritza, Arrantza, Industria eta Turismoko batzorde informatzailearen buru titularra.





Ordezkoa: Jokin Izagirre Zabala (Orain).

- AMAIA DORRONSORO PORTULARRUME (Bildu): Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailearen buru titularra.

Ordezkoa: Beñat Solaberrieta Albizu (Bildu).

- JON AGIRRESAROBÉ LOPETEGI (Bildu): Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzailearen buru titularra.

Ordezkoa: Ekiñe Saizar Larrañaga (Bildu).

- BIXENTE LASA KARRIKABURU (Bildu): Kirola, Aisialdia eta Gazteriako batzorde informatzailearen buru titularra.

Ordezkoa: Jon Agirresarobe Lopetegi (Bildu):

- MIRIAM URANGA EGURZA (Orain): Gizarte Ongizatea, Enplegua eta Merkataritzako batzorde informatzailearen buru titularra.

Ordezkoa: Jokin Izagirre Zabala (Orain).

Azkenik, alkateak adierazten du asmoa duela Amaia Dorronsoro Portularrume (Bildu), Miriam Uranga Egurza (Orain) eta Jokin Izagirre Zabala (Orain) zinegotziak izendatzeko Orioko Tokiko Gobernu Batzarreko kide; hori datorren irailean egingo du, behin Tokiko Gobernu Batzarrari delegatuko dizkion eskuduntzak definitzen dituenean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die bozeramaileen batzordea osatzea, aurreko agintaldian bezala, bertan jasotzeko ondoko kontu hauen berri: alkateak dekretuz hartzen dituen erabakiak, kontabilitate sailak ordaindutako fakturak eta udalbatzarreko bilkuretako gai-zerrendak.

Miriam Uranga lehen alkateordeak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du Udala legez behartuta dagoela Tokiko Gobernu Batzarra eratzeraz eta EAJ talde politikoa gonbidatuta zegoela bertan parte hartzeraz. Gobernu Batzarra, hortaz, alkateak eta Udala osatzen duten hiru talde politikoen (EAJ, Bildu eta Orain) ordezkari banak osatuko zuten, hasierako proposamenaren arabera; baina, EAJk bertan parte hartzeari uko egin dionez, Bilduko bi ordezkariak eta Oraineko beste bik osatuko dute, halaberrez.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO JAIEGUNA IZENDATZEA 2012. URTERAKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Alkatearen proposamena da Orioko jaieguna 2012. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.





Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**PROPOSATZEA** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2012. urtean ekainaren 29a izan dadin, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ekainaren 21eko 131/2011 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2012. urterako.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du agintaldiaren hasieran gaudela eta adierazpen askatasuna errespetatu behar dela; adierazten du, baita ere, ez duela udalbatzarraren bilkura honi dagokion informazioa garaiz bidali, Udala osatzen duten talde politikoeekin azken ordura arte negoziatzen aritu delako.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**